

## Arnasgunea eta esperantza

Gidor Bilbao telletxea

Inon ez dut aurkitu idatzita aldizkari zientifikoetako zuzendariak zenbatean behin aldatzen diren, zelan hautatzen diren, ezta zuzendari horren funtzio zehatzak zein diren ere.

*Uztaro* 1990ean sortu zen, UEUren ekimenez eta UEUren babesarekin. 1990ean, oraindik Euskal Herriko unibertsitateetan soilik asignatura banaka batzuk irakasten zirenean euskaraz, oso-osorik euskaraz eginiko giza eta gizarte-zientzietako aldizkari zientifiko bat behar zela pentsatzeko, egingarri zela uste izateko, erredakzio-kontseilu bat osatzeko, eta 127 orrialdeko 0 zenbakia argitaratzeko, ezinbestekoa zen benetako euskal unibertsitatean sinestea, eta euskal unibertsitatean jakintza euskaraz hausnartzea eta euskaraz komunikatzea ezinbestekoa dela pentsatzea. Mikel Zurbano, Mikel Aizpuru, Iñaki Gaminde, Mikel Haranburu Oiharbide, Jesus Mari Zalakain eta Mari Karmen Menika izan ziren lehenengo erredakzio-kontseilu hartan, eta Alfontso Mujika arduratu zen hizkuntza-orrazketaz. Jokin Apalategi Begiristain (Ataun, 1943) ikertzaile, irakasle eta liburugintzako adituari eskatu zioten proiektuaren gidaritza hartzeko, eta hala egin zuen aldizkariaren lehenengo 100 zenbakietan, 1990etik 2017ra. Arin esaten da: 27 urte, 102 zenbaki zehazki.

Ni 1992an hasi nintzen *Uztaron* laguntzen. Gidor Bilbao Telletxea (Bermeo, 1965). Hogeita hamar urte bete gabe, EHUren Ikasketa Klasikoen sailean nintzen latin-irakasle, eta aldizkarigintzaz zertxobait ikasia nuen ordurako, Joseba Lakarrari esker, *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* aldizkariaren makina-gelan.

Hasieran, ikusi nuen hizkuntza-orrazketetan eta ortotipografiaren normalizazioan egin nezakeela nire ekarpena, eta harro esango dut ordu asko eman nituela sukalde-lan horietan. Urte horietako une asko gogoratzen ditut *Uztaroko* artikulua bat esku artean, autore batekin bere artikulua hitz egiten mahai batean, edo Mari Karmen Menikarekin, Izaro Gurrutxagarekin edo Nekane Intxaurtzarekin inprenta-probak bideratzen; leku konkretuak eta momentu konkretuak ditut buruan, eta pozez gogoratzen ditut. EHU euskalduntzeko ekarpenak egin nahi zituen irakasle gaztearentzat, arnasmune eta euskal unibertsitatearen aurrerapen ziren UEU eta *Uztaro*.

2010ean, *Uztaron* argi ikusi genuen aldizkari zientifikoaren alorra asko ari zela aldatzen munduan, eta guk ere urratsak eman behar genituela kalitate-adierazleen neurgarritasuna eta ikusgarritasuna areagotzeko. Ordura arte, zenbakiro ahalegintzen ginen aldizkaria gero eta hobe izan zedin, gure senak eta beste erreferentziazko aldizkari batzuetan ikusten genuenak erakusten zigunaren arabera; eta orduan ikasi genuen munduko aldizkari zientifikoetan funtsezkoa dela on izate hori neurgarria izatea eta, ahal bada, kanpoko erakunde zientifikoek aitortzea. Pozik esan genezake

*Uztaro* aitzindaria izan zela, euskal aldizkari zientifikoen artean, artikuluen ebaluazio itsurako protokoloa egokitzen eta abiarazten, eta kalitate-erakundeen aitortza lortzen. Ez naiz nekatuko esaten horretarako funtsezkoa izan dela UEUk proiektuan sinestea eta baldintzarik gabeko babesa eskaintzea beti erredakzio-kontseiluaren proposamenei.

2017an Jokin Apalategik proposatu zidan neuk hartzea aldizkariaren zuzendaritza. Gorago esan dut inon ez dudala aurkitu idatzita noiz aldatu behar den aldizkari zientifiko bateko zuzendaria, ez eta zelan hautatzen den ere. Esango nuke Jokin Apalategik 100. zenbaki biribilean aurkitu zuela aitzakia, 27 urtez UEUri emandako hitza zintzotasunez bete ondoren, lekukoa gazteago bati pasatzeko; 2017an Jokinek 74 urte zituen, eta nik 52. Pozik hartu nuen zuzendari-izendapena, eta neure artean pentsatu nuen nolabait UEUk ere pozik aitortzen zuela *Uztarok* azken urteetan eginikoaren balioa.

Orain 60 urte bete ditut eta soldatapeko lanean erretiroa hartzeko aukera daukat. Irakasle-lanean disfrutatzen dut oraindik, goizero aurkitzen ditut ikertu nahi nituzkeen ikergai berriak, 1992an bezala ari naiz gozatzen (eta sufritzen) UEUrentzat orrazten ari naizen liburuarekin, baina argi daukat atzetik datozenen txanda dela. Ze badatoz.

Oraingoan bozketaz hautatu da, aldizkariaren erredakzio-kontseiluan, Jon Mentxakatorre Odriozola (Galdakao, 1992) zuzendari berria; eta UEUko Talde Eragileak eta zuzendaritzak erredakzio-kontseiluaren proposamena onetsi dute. Jonen hautagaitza proposatu zuen kontseilukideak idatzi zuen hau: «Pertsona egokia iruditzen zait bai formakuntzaz, bai gaitasunez, bai jarreraz, bai adinez, proiektuari heltzeko». Eta Jon ondo ezagutzen zuen norbait zen. Nik beste hau idatzi nuen: «*Uztaro* aldizkariaren Erredakzio Kontseiluan sartu diren azken kideetakoa da, baina, 34 urte betetzear denean, ibilbide oparoa du euskarazko lan akademikoen argitalpenean eta esperientzia kontrastatua UEUren argitalpengintzarekin loturiko hainbat deialdiren kudeaketan. Nire ustez hain zuzen *Uztarok* orain behar duen zuzendari profila du horregatik: nahikoa esperientzia argitalpengintzan eta UEUn, eta ilusioa sobera, aldizkariak lorturikoak sendotzeko, erredakzio-kontseiluko taldearen lana dinamizatzeko eta erronka berriei ekiteko». Erredakzio-kontseiluaren bozketa sekretuan, kide guztien aldeko botoa hartu zuen.

Bozketaren hurrengo batzarraren egunean, batzarraren aurretik, Jonen nirekin hitz egin nahi zuen aldizkariko zuzendariaren eginbeharrez. Aitortu nion nik gutxi neukala esateko, baina pasieran joan ginen biok elkarrekin, Bilboko Erriberatik hasita, errekan behera; Mondragon Unibertsitatearen Bilbao Berrikuntza Faktoriaren ondotik igaro ginen eta Deustuko Unibertsitatearen aurrean bere ikasle-garaiak, irakasleak eta ikaskideak aipatu zizkidan; EHUn Bizkaia Aretoaren aurretik pasatzean, errektoreorde izan nintzenean nire bulegoa non zegoen seinlatu nion; Baionako UPPAn eta Iruñeko NUPen ditugun adiskide euskaltzaleen lanaz hitz egin genuen... eta berriz ere Erribera 14rako bidean, aitortu nion nik oraindik gaur ere, 1992an bezala, UEUn eta *Uztaron* aurkitzen ditudala euskal unibertsitatearen arnagunea eta esperantza.